

## Diseinu Graduetarako sarbide probaren egitura

### 1. IDATZIZKO ARIKETA (A+B)

#### **A. ZATIA:**

Diseinuari edota arteari buruzko idazki labur batzuk emando dira, hautagaiak haiei buruzko iruzkin laburrak egin ditzaten.

#### **B. ZATIA:**

Gai bat edo batzuk emango dira arlo hauekin harremandutak: ikusentzutezko kultura, kultura kontsumoa, hezkuntza edota diseinua. Izangaiek 10 bat lerrotan iruzkin batean argudiatu beharko dituzte.

#### **EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

- Maila narratibo-deskribatzailea (%40).
- Kontzeptualizatzeko, argudiatzeko eta laburtzeko gaitasuna (%40).
- Idazmena (%20).

### 2. ESPAZIO IKUSKERA ETA ERAIKUNTZA (A+B)

#### **A. ZATIA:**

Test erako proba, espazio eraikuntzari, garapenei, hedapenei, bolumentriei eta ikuspegiari buruzkoa.

#### **B. ZATIA:**

Marrazketa teknikoko proba bat.

#### **EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

- Espazio ikuskera (%40).
- Definizioaren ulermena eta eraikuntza formala (%40).
- Aurkezpena, ordena, garbitasuna eta errotulazioa (%20).

### 3. ERREPRESENTAZIOA

Objektu eta bolumen jakin batzuk emanda, hautagaiak konposizio espazial bat sortuko dute. Helburua da jatorrizko konposizioa ezagutzen ez duen norbait gai izatea errepresentaziotik abiatuta hura birsortzea.

#### **EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

- Objektuen konposizioa, ordena, egitura eta kokapena (%30).
- Espazio ikuskera eta formaren ulermena (%30).
- Aukeraturako errepresentazio deskribatzailearen koherentzia (%20).
- Aurkezpena eta garbitasuna (%20).

### 4. ERRONKA SORTZAILE SUBJEKTIBOA

Emandako material batetik abiatuta (testua, bideoa, musika), elementu batzuk eduki beharko dituen sormen-erronka bat proposatzen da. Elementu horiek ere eman egingo dira.

#### **EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

- Sormena, kontzeptualizatzeko gaitasuna, konposizio sintetiko eta koherenteen barruan sartuta dauden esanahiak sortzeko gaitasun sinbolikoa (%40).
- Ikusizko informazioaren konposizioa, ordena eta hierarkia (%40).
- Egikera eta akaberak (%20).

#### **INFO +**

+34 945 123 395

[info@idarte.eus](mailto:info@idarte.eus)

[www.idarte.eus](http://www.idarte.eus)